

GIPUZKOAKO HERRITARREN KULTURA POLITIKOA

HAUSNARKETA JARDUNALDIAREN MEMORIA

-Gipuzkoako Batzarkideak, 2017ko azaroaren 15ean-

BEZEROA:

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

JARDUNALDIAREN **MEMORIA** DESKRIPTIBOA



→ BERTARATUTAKOAK:

- ✓ Aldundiko Bizikidetza eta elkarbizitzarako Zuzendaria: Maribel Vaquero Montero.
- ✓ 18 Batzarkide honako taldeen arabera: EAJ= 5 batzarkide; EHBildu= 5 batzarkide; PSE= 3 batzarkide; PODEMOS= 5 batzarkide.
- ✓ Aztikereko 4 teknikariak: Asier Etxenike, Maitane Barrenetxea, Xabi Luque eta Susana Martinez.

GUZTIRA: 23 pertsona, 13 emakumezkoak eta 10 gizonezkoak.

→ AGURRA:

Maribel Vaquero Monterok, Bizikidetzarako Zuzendariak ongi etorria eman die partaideei. Era berean, Jardunaldiaren kokapena egin du, Zuzendaritzak dituen 3. Lerroaren baitan: *Kultura Politikoa eta Elkarbizitza*. Horrela, legealdia hasi zenetik ikerketa ildoak garatzen ari dela kokatu du, eta gaurkoa batzarkideekin egiten den II Jardunaldia dela ere esan du. Egunak dituen helburuak erreparatzearekin batera, Aztiker Ikerguneko partaideak aurkeztu ditu: Inkestak egin dituen lan taldea eta gaurko Jardunaldia bideratuko duen lan taldea.

→ JARDUNALDIAREN HELBURUAK

Egitasmoak ondorengo helburu nagusi hauei erantzun nahi izan die:

- *Gipuzkoako herritarren kultura politikoa, 2017:* gipuzkoaren artean eginiko Ikerketen emaitzen transmisioa egin.
- Ikerketak sortutako emaitzekiko Gipuzkoako Batzarkideek dituzten balorazio orokorrak jaso.
- Kultura politiko eta demokratikoa garatzeko proposamenen balorazioak jaso: Emaitzak ezbaian uzten dituzten hainbat proposamenen talde azterketa egin; aurrera begirako lan ildo edo proiektuen inguruko posizionamendu ariketa egin.

1. IKERKETAREN EMAITZEN AURKEZPENA:

- a. Asier Etxenikeren eskutik egin da **aurkezpena**.
(Ikus 1. Eranskina: Txosten interpretatiboaren emaitzen dokumentua)
- b. Partaideen **galdera-erantzunak**:

Partaideen galderak eremu hauetan kokatu dira:

- Erabilitako langinaren ezaugarriez.
Lagina errepresentatiboa da Gipuzkoarako= 1469 inkesta, ondorioz Gipuzkoarako kalitate handikoa eta konfiantza maila handikoa era.
- Erabilitako laginaren eskualdeko oreka-desorekaz.
Eskualdeko pisu banaketari dagokionez ez da proportzionala izan, estatistikak ez duelako horretarako baimena ematen. Horregatik, nahiz populazio tamainaz oso ezberdinak izan, eskualdeaz hitz egin ahal izateko lagin bera atera da Oarsoaldean eta Tolosaldean. Horiek Gipuzkoarren zerbitzura jartzerakoan ordea, erabat orekatua eta errepresentatiboa izan dela ziurtatzen da.
- Erabakitzeko aukeraren aurrean %48k egiten du horren alde. Eskatzen da argitzea nola izan den galdera. Era berean galdetzen da ere emaitzaren kointzidentziaz azken azterketatan, eta eskatzen da argitzea ea azken urteetako eboluzioa aztertu den:
Erantzun da galde sortaren eranskina errepasatu ondoren, eta bertako galdera zehatzak irakurri dira. Horrela, eboluzioaz argitzen da duela hiru urteko EHuko ikerketaren emaitzekin alderaturik (modu berean galdetu zelako), eta horren emaitza argitzen da.

Horrela, galdera-erantzunen atala amaitutzat eman da aurreikusitako denbora tartea gainditu duelako. Balorazio dinamikara pasa aurretik, ikerketa kualitatiboan zehar sortutako hainbat kontzeptuen adieraz eta ikerketan zehar izandako gertaeraz egin da kokapena, honela:

“KULTURA POLITIKOA ETA DEMOKRATIKOA”, KONTZEPTUEK DITUZTEN ADIERA EZBERDINAK KOKATZEA:	GARATU BEHAR DEN KULTURA POLITIKOAREN EZAUGARRIAK (ADOSTASUNA DUTENAK):
<p>POLITIKA: zerbitzu, jarduera eta ekimen publikoen kudeatzeko eskemak eta irizpideak.</p> <p>DEMOKRATIKOA: adiera aniztasuna du; osagai kuantitatiboa: “gehiengoaren iritzia”, kualitatiboa: “gutxiengoaren” iritzia kontuan izanik. Ñabardura nabarmena eta kontraesanak erabakiak hartzeko eremua zehazterakoan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu edo zerbitzu sozial baten kasuan, erabakitzeko subjektua tokia edo lurralde eremua bera izan daiteke. Ñabardurekin, baina kontsentsua. • Subjektu politiko baten kasuan, ñabardurak eta ikuspegi ezberdinak • Estatuak izan behar du erabakigunea • Nazioa edo Lurraldeak izan behar du erabakigunea • Tokiko/lurraldeko herritarrak izango dira erabakigunea zehaztuko dutenak 	<p>Sistema ordezkatzailerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alderdi politikoak irudikatzen dira subjektu gisan, baina gainditu beharra dago “alderdi interesen” funtzionamenduen muga/pareta: - Kualitatiboan eginiko eztabaida taldeetan, guztietan ados jarri dira eskema eta metodologia baliagarrietan “kotsentsuak” kudeatzeko. Talde politikoaren eztabaida taldean aldiz hori ez da gertatu. - Gardentasun gehiago, bai politikoei buruz, bai politika ezberdinei buruz, eta baita erabakiak hartzeko metodologiei buruz. - Herritarren inplikazio eta partaidetza gehiago: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Batez ere erabakiak hartzeko eremuan ▪ Baita hausnarketa eta deliberazioen eremuan ere

2. BALORAZIO DINAMIKA

Partaideei bina postit banatuta, eskatu zaie kolore bakoitzeko galdera bati erantzutea. Hauxek izan dira luzatu diren galderak:

- **Arreta gehien deitu dioten emaitzak-elementuak** kokatzea (norbanako ariketa irekia) (Postit berdea)
- **Ordezkarri publiko gisan, zertan sentitu zara interpelaturik?** (bai positiboan zein negatiboan) (Postit laranja)

Emaitzak konpartitzeko hiru azpi taldeetan banatu dira partaideak. Jasotako edukiak ordenaturik azaltzen dira jarraian, partaideek adierazi dituzten moduan:

Zein da arreta gehien eman dizun ideia-elementua? Zerekin geratu zara? Zer azpimarratuko zenuke?	Ordezkarri publiko zaren neurrian, zertan sentitu zara interpelaturik? (positiboan zein negatiboan)
<p>-Independentziaren aldeko % oso altua da.</p> <p>-Que un territorio donde los dos partidos más votados son soberanistas (uno más que otro), que el 49,6% considere que para que el resultado sea aceptable debe superar el 80%.</p> <p>-Niretzat deigarriena %48,2 euskal estatutuaren alde eta soilik %13,3 aurka. Tartean %27,8ez daki, %10,7 abstentzioa = %38, 5.</p> <p>-En el aspecto marcadamente local (la cuestión del estado vasco y similares) veo un sesgo por la configuración subjetiva de las preguntas. Y la ubicación de las entrevistas.</p> <p>-Ingurumenaren zaintzarekiko kezka adierazten duten pertsonen ehunekoa oso altua da, osasunaren eta familiaren ondoren gipuzkoarren hirugarren kezka nagusia.</p> <p>-Me llama la atención la valoración de los jóvenes, sobre todo que suba el entusiasmo → esperanza.</p> <p>-Sentimientos que genera la política entre la juventud. (<i>El interés ha crecido el hasta casi el doble?</i>)</p> <p>-Komunitatean dagoen konfiantza eta gizarte taldeetan inplikatzeko gogoia handitzen doaz, interpretatu daiteke joera indibidualista hutsa nolabait gainditzen ari dela eta norberaren kolektiboarekin uztartzen duen profil bat ari dela indartzen.</p> <p>-Parte-hartzearen gaiari dagokionez, gogo handia egotea eta beste europar herrialde garatuenean mailan egotea (%81ak parte hartu nahi duelarik eta %42ak parte-hartze mekanismo errealak eskatzen dituelarik), jendeak politikan eragin nahi du. Aldea dago hala ere modelo partehartzaileago bat eskatzen dutenen eta bertan parte hartzeko prest daudenen ehunekoen artean. Nola ulertu hau?</p> <p>-Considero que ha mejorado la valoración de los políticos y me satisface.</p> <p>-14. orria vs 20. orria: Politika eta sentimenduak Gipuzkoan Haserrea %50, Mesfidantza %46, Asperdura %33 vs. 20. orrian poztasun-maila %55.</p> <p>-Herritarrek politikari buruz duten iritzi negatiboa.</p> <p>-Politikariekiko konfiantza txikia eta interes handia Gipuzkoan.</p>	<p>-Demokrazia sakontzeko gogoan, teoritik praktikara dagoen saltoa.</p> <p>-Poztasun maila altua demokraziari dagokionean.</p> <p>-Demokrazian sakontzeko dagoen beharraren aurrean dugun zeregina.</p> <p>-Politika eta berrikuntza: politikariok eskatzen diogu gizarteari berrikuntza arlo guztietan, baina politikan oso berrikuntza gutxi egiten dugu.</p> <p>-Ez da berria, baina bai tristea, "politikarior" buruz jendeak azaltzen duen iritzia (edo "estereotipoa" bilakatu ote da?). Politikari guztiei buruz ari den arren (eta ez euskaldunei buruz soilik), politikoen %63a ustelak direla pentsatzeak eragin dit, euskal gizarteak estatuaren gainerakoak baina sozializazio politiko altuagoa duela kontsideratzen dudalako.</p> <p>- ¿Son todos los partidos políticos iguales o hay excepciones? %82,7 (hay excepciones). Baina ez da izango ¿la excepción confirma la regla?)</p> <p>-Que la clase política tiene que esmerarse para hacer ver y entender la realidad del sistema político. Mejorar la pedagogía en general.</p> <p>-Mesfidantza izatea (konfiantza eza).</p> <p>-Egia esan eta esandakoa aurrera eraman beharra.</p> <p>-Necesidad de trabajar sobre las principales preocupaciones de Gipuzkoa (medio ambiente, salud, familia) para modificar el sentimiento negativo que produce la política.</p> <p>Desconfianza y entusiasmo.</p> <p>-Facebook-en erabilera altua</p> <p>-Herritarren %75ak bere etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa nahi badu, herri ordezkari gisa horretarako aukera eman beharko genioke.</p> <p>-Buscar nuevas formas de participación.</p> <p>-Parte-hartzea areagotuko duen tresnak ez ditudala behar beste bideratzen.</p> <p>-Parte hartzeko formatua nola bermatu.</p>




<p>-El porcentaje de reconocimiento de excepciones entre los/las políticas.</p> <p>-La cercanía de nuestra cultura política con la de países de mucha mayor tradición democrática.</p> <p>-Demokraziaren mailari buruz adierazten den poztasunaren neurrian aldea Espainia eta Euskadiren artean.</p> <p>-Alde batetik, dugun demokrazia maila altua nabarmentzekoa da, baina bestetik, alderdi politikoekiko edo errekonozitua ez dagoen erabakitze eskubidearen aldeko jarrerekin dagoen kontraesanak atentzioa deitu dit.</p> <p>-En los espacios generales, la falta de diferencia en la crítica al sistema democrático, en relación a otros territorios o autonomías.</p> <p>-El alto % de personas que no se muestran indiferentes a los asuntos políticos. Gipuzkoak politika bizi du. Politika tresna baliagarria eta beharrezkoa da oraindik...</p>	<p>-Necesidad de poner en marcha mecanismos de participación ciudadana.</p> <p>-Parte hartzea nola bultzatu.</p> <p>-Herritarrek politikoak behar gaituzte euren bizitza hobetzeko (positiboa).</p>
--	---




3. KULTURA POLITIKOA ETA DEMOKRATIKOA GARATZEKO PROPOSAMENAK

Azpi talde bakoitzak honela egin du lana:

"Kultura Politikoa eta demokratikoa", kontzeptuek dituzten adiera ezberdinak gogoratu ondoren, herritarren ustez garatu behar den kultura politikoak behar dituen ezaugarriak erreparasatu dira. Segidan, zazpi proposamen ezberdinak azaltzen dituen matriza banatu da. Bertan azaltzen den proposamen bakoitza aztertu du partaide batek, eta gero konpartitu eta osatu dira pertsona ezberdinek eginiko azterketak. Era berean, partaideek aukera izan dute proposamen berriak kokatzeko.

Azkenik, partaideak posizionatu dira, haien ustez, garrantzia gehien duten bi proposamen lehenetsiz. Jarraian azaltzen dira lan talde bakoitzak eginiko lanketen oinarrian, eduki guztiak ordenaturik azken taula batean:

Lehentasunen pegatina berdeak	AIPU ZEHATZAK	Gaur egun martxan jartzeko aukerak	Gaur Egun martxan jartzeko zailtasunak	BESTELAKO BALORAZIOAK Nork? Nortzuk? Nola? Norekin? Zer erabili?...
	<p><i>Gatazkak balioan jarri behar dira eta sozializatu behar dira taldeak-gizarteak aurrera egiteko tresna moduan. Horretarako osagaiak: konfiantza, errespetua, berdintasuna (orotarikoa), prestigioa, akordioak eta adostasunak</i> <i>(Adituak eta herritarrak)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> - Pocas posibilidades. - Potencial de cambio. - Acordar códigos. - Hoy en día ya se trabaja (consensos). - Egun oso altuak dira - "indarra" duten sujetuak egon behar dute (jende asko biltzen dutenak) - Publiko / pribatu koordinazioa - Elementu edo tresna publiko/pribatuen MEDIAZIOA 	<ul style="list-style-type: none"> - Enrocarse → arma política. - Autoafirmación. Intereses partidistas. - Estereotipoak hausten (siglak...) - "POSTVERDAD": poder de intoxicación de los medios. - Naturaleza irracional, no hay deseo de resolución. 	<ul style="list-style-type: none"> - Inherente. Unido a la sociedad. - Encauzarlo al interés general. - Dialogo, voluntad. - Escala. Importante. - Familiarik-estatura. - Botere harremanak. - Identitatea - Kohesio gehiago - Lurraldea
	<p><i>Akordioen kultura landu beharra: akordioak balioan jarri, premiatu (udal mailan eta baita lurralde mailan....) pertsonak zein kolektiboak saritu</i> <i>(adituak-herritarrak)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> - Beste (eredu) eremuak sortzea (estruturak, boteretik harago). - Teorian gizarteak onartzen du. - Konplexutasuna. - Talde politikoak - Ordezkaritza politikoak - Prestigioa - Cuestión de voluntad 	<ul style="list-style-type: none"> - Gustuko akordioak bakarrik baloratu. - Norberaren egunerokoan horren kontrako. - Botere harremanak. - Estrukturalak (alderdiak, instituzioak, funtzionamendua....) Presioak, kalkuluak... - No aspirar a todo, entender que hay que ir poco a poco. - Es necesario socializar los acuerdos alcanzados. No se está haciendo. - Estar preparado para ceder, para negociar. - Lehia, Harrotasuna, Burugogorkeria 	<ul style="list-style-type: none"> - Prestutasuna behar da. - Kontsentsu gehiago herriak aurrera egiteko. - Akordioak ikusarazi
	<p><i>Alderdi politikoak subjektu gisan onartuta ere, ezinbestez hauen lehia/hegemonia funtzionamendua eraldatu behar da, alderdiak beraiek izan ez daitezten muga/pareta, bestelako kultura politikoaren garapenean</i> <i>(herritarrak)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> - Borondate beharra (guztien partetik). - Jarrera eskuzabalaren beharra. - Arrazoia - Gipuzkoan borroka hegemonikoa - Aurrera begira: bat edo beste Konfiantzazko eremuak landu - Batzen gaituzten helburu partekatuetan alderdi lehiaketa amaitu 	<ul style="list-style-type: none"> - Juridikoki zailtasun handia. Indar handia politika mailan. - Bestela ebidentzian geratzera goaz - Kultura politiko eskasa - Udal mailan ere zailtasunak - Epe motzean ari gara. - Botere faktikoak - gizartearen pasibotasuna. - Helburu politikoaren aurretik alderdi aukerak gailendu. - Hauteskunde lehiaren garrantzia - Alderdi interesak 	<ul style="list-style-type: none"> - Legedi aldetik aldaketak egin beharrak- - Beste eredu batzuei begiratu nahiz eta guztiak ez izan baliagarriak. - Alderdi berrien sorrera: - EPEAK (hauteskundeak)- beti ez datoz bat interes orokorrekin. - Bizikidetzak akordio politikoa - Batzen gaituen horretan gehiago landu - Hainbat eremutan zazpi egiturak, hezkuntzan, bakegintzan...

		<ul style="list-style-type: none"> - Alderdiak orokorrean gizartearen ordezkari bezala daramaten gainbehera aukera izan daiteke, hala ere, ez dago nork ordeztuko duen espazio hori. - Epe motza. 		<ul style="list-style-type: none"> - Alderdiak sakoneko ituna "etorkizuna eraikiz" horrelakoak ongi adostu. - Gizarte kritikoagoa / aktiboagoaren beharra.
	<p>Herritarren betebeharrak- eskubideak edo onurak (kaxa komunaren) sozializazioa eta heziketa landu beharra. Ikuspegi kolektiboa, talde-komunitatea landu beharra (Batzarkideak-Adituak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Udal ikuspegitik partidak horretarako - Aurrekontuak ezagutzea Iritzia (ezberdin) irizpidea - Educar - Acordar 	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarrak "berak" arrazoiak, ez "gara" arazoa. - Gogo behar da ezagutzeko ez delegatzeko. - Erosoak gara - Sobre informazioa, oreka non dago? - Kolektibotasuna bizitzaren arlo guztietan landu beharra (lan arloan ez da existitzen) - Diferentes discursos/posiciones entre agentes: patronal/sindicatos... 	<ul style="list-style-type: none"> - Udal maila - Aurrekontua - Nola lortu iritzia? - Administrazioa (transparentzia), zentimo bakoitza zertan gastatu den argi izan. - Aktiboak izatea azalpenak ematen
	<p>Legeen ikuspegi eta garapen dinamikoa landu: aldiro aztertu legeak eta eraldatzeko aukerak eman (ez daitezela izan paretak-hormak, eboluzionatzen uzten ez dutenak). (Adituak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Gau egun egiten da. Aldiro. - Momentu historikoa, indar korrelazioa, aldaketak. - Legeak urratzeko - Legeak egokitzeko aukera - Foru arauak bezala aldagarriak egin, aldaketak naturalizatu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aldaketaren balioa neurtzea zaila. - Eskumenen banaketa (estrukturanteak Madrilan → Europa) (status quo) - Conflictos de interés: personales, entre gremios... - Aplikazioa: askotan legeak aldatu edo indarrean egon arren aplikazioan egoten da gakoa. 	<p>-Estatua (+europa) legeen "saturazioa"- legeen defentsa eskubide demokratikoen kontra. Esan gabe legeak ez daudela betetzeko.</p>
	<p>LEGEZ ARAUTU: Kopuru zehatz batetik gorako inbertsio proiektuetan, eztabaida sozialak, teknikoak eta politikoak eman ondoren "3-4 aukera ezberdinen" aurrean herritarrek erabakia hartuko dute kontsulta bidez. (Herritarrek)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera gutxi nahiz eta oztopo legalik ez. - Arautua dago - Sustatu herritarren ahalduntzea - Parte hartze aktiboa - Voluntad política. 	<ul style="list-style-type: none"> - Norbere ↔ interes komuna. - Gutxi erabili. - Hierarkia sozialak daude. - Heziketa maila ezberdinak - Lan arloan gehienak ez dute ezer esateko, oso mugatua. - Lan munduan (hutsunea) ez du ezer pintatzen, eta publikoarekin lotzen da. Sistemak (pribatuak) ez du uzten. - Akordioak lortzeko zailtasunak - Formas adecuadas: <ul style="list-style-type: none"> o Todos los colectivos o Sencillo o Inclusivo 	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera ezberdinak aztertzeko beharra: 3-4 proiektu, zorpetze maila... - Uztartzea (ordezkaritza edota partaidetza) - Berdintasunik ez dago - Bizitza erreala ezberdina da - Oinarriko eskubideak? - Sujetos: técnicos de participación - Planificar - Medios telemáticos - Instituciones: legislas. - Arautzea beharrezkoa da? Zein baldintza? Kultura politiko gutxi. Guztiaz erabaki?

			<ul style="list-style-type: none"> - Agentes políticos, técnicos, sociales. - Borondate politiko falta. 	
	<p><i>Oraindik urruti gaude herritarren partaidetzaren kontzeptutik. Imaginarioa osatzeko ere zailtasunak ditugu: zer da herritarren partaidetza? Egun "ordu sindikalak" arautuak eta derrigorrezkoak dira, pentsa daiteke honelako formula batean politika publikoetan inplikatzeko? Hots, "komunitate edo partaidetza orduak" arautu, lan mundua-instituzioak inplikatuz horretan.</i> <i>(Herritarrak)</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> - "Ordu sindikala" formula - Egun dauden formula ezberdinak arautu. Eskubide + betebeharrak. <ul style="list-style-type: none"> o Gaia o Epemuga o Aniztasuna o Gutxieneko PH o PH inplikazioa/erabakia - Ph mota ezberdinetatik bozkaraino. 	<ul style="list-style-type: none"> - Bileretan inor ez - Dena ez da parte hartzea. 	
●	<p>PROPOSAMEN BERRIA NIP delakoak: metodologia eta egitura gisan garatzeko oso interesgarria</p>			
	<p>PROPOSAMEN BERRIA APARTEKO BALORAZIOA</p>	<p>Aukera txikiak. Instituzioaren arabera. Gizartean aldaketak ematea ere beharrezkoa Ez da politikarien arzoa: gizartearen ispilua.</p>		

4. TALDE BALORAZIOA ARIKETA

Agurtu aurretik honako oharrak eman zaizkie partaideei:

- Jardunaldiak memoria deskriptiboa izango du, bi hizkuntzatan jasoko dena, eta partaide denei helaraziko zaiona. Hortik aurrera publiko egin ahal izango da.
- Jardunaldiek (Adituena zein batzarkideena) **Ondorioen dokumentu bateratua** izango du, eta bien arteko konparaketa edota bateragarritasun dokumentua sortuko da .

Azkenik, partaideei eskatzen zaie kokatzea marra batean, 0-10 balorazioak kontuan izanik. Partaide gehienak kokatu dira 5'5-8 artean. Agurtu aurretik haien balorazioak azaltzeko hitza eskaini zaie partaideei eta ondorengoak dira jasotako aipamenak:

- Baliagarria ikusten da ikerketa bera, eta batez ere tarte bat hartzea elkarrekin hausnartzeko gaiaz. Ongi dago ikuspegi ezberdinen arabera elkarrizketa sortzea eta saiatzea siglez gaineko elkarrizketa eredia sortzen.
- Beharrezkoak dira honelako geldialdiak egitea, jasotzea herritarren inpresioa, eta auto-ebalutzea gure jarrerak eta jokaerak. Ispilu aurrean egotea beharrezkoa dugu.
- Baloratzen dut errespetuzko jarrera, guztiok izan duguna.
- Interesgarria izan da, esperientzia gisan ekarpena egin digu. Aurrera begira ere errepikatzea.
- Interesgarria baina agian trinkoegia, eta ondorioz arinegia. Beharrezkoa da laburragoa izatea. Kontraesanean sumatzen dut halere balorazioa, baina saiakera beharko luke izan denboraz ez oso luzea eta aldi berean emankorra.

Amaitzeko, Maribel Vaquero Montero Bizikidetzarako Zuzendariak partaideek eskainitako denbora eskertu du eta aurrera begira gaiaren inguruan harremanetan jarraitzeko konpromisoa adieraztearekin batera, horretarako deialdi berriak ere izango direla esan du.

Jardunaldia amaitutzat eman da iluntzeko 19etan.

Donostian, 2017ko azaroaren 15ean.

BATZARKIDEAK ETA ADITUAK. JARDUNALDIEN **ONDORIO OROKORREN ALDERAKETA**



1- BALORAZIOA:

Jardunaldietan parte hartu duten batzarkide eta adituak Gipuzkoako herritarren kultura politikoaren azterketaren emaitzak ezagutu, eta lehen balorazioak egin dituzte. Lehenik, azterketaren emaitzari dagokionez, arreta gehien piztu duen ezaugarriei helduz, hauek dira komunean agertzen diren puntuak:

- ✓ Erabakitzeko eskubidearen aurrean agertzen diren herritarren joerak.
- ✓ "Indibiduo arduratsua" kontzeptu gisa.
- ✓ Parte hartzeari dagokionez, alde batetik, herritarren parte hartzerako beharren eta errealitatean dagoen prestutasunaren artean dagoen aldea; eta bestetik, gainontzeko herrialdeekin alderatuta konfiantza eta gizarte kapitalaren datuak.

Bigarrenik, zein gaitan interpelaturik sentitzen diren galdetzean, alde handiagoa dago batzarkide eta adituen erantzunen artean.

- ✓ Adituen aldetik, norberak bere eremura gehiago joz, balorazioak askotarikoak dira: hezkuntzaren eremuan gazteek sistemarekiko duten atxikimendu faltan eragiteko beharra; herrigintzatik "identitate kolektiboak" sortzearen beharra; erabakiak hartzeak daukan konplexutasuna eta berehalako komunikazioaren artean dagoen aldea...
- ✓ Batzarkideen eskutik, klase politikoaren irudiaren gaineko kezka agertzen da, politikaren berrikuntza faltarekin batera. Gainera, herritarren parte hartzeko nahiei erantzuteko zailtasunak ere aipatzen dira.

2- KULTURA POLITIKOA ETA DEMOKRATIKOA GARATZEKO PROPOSAMENAK

Batzarkide eta adituekin egindako saioen bigarren atalean, kultura politikoa eta demokratikoa garatzeko proposamen sorta baten gainean eztabaidatu da. Gainera leheneste ariketa bat ere egin zen talde ezberdinetan, eta, bi saioetako emaitzak alderatuta, biak bat datoz lehenesten diren proposamenetan.

- ✓ Gatazkak balioan jarri eta sozializatzearen beharra, akordioen kultura landu eta indartzen joateko.

Adituen saioan aurreko proposamena guztiz lehenesten bada ere, batzarkideen saioan bigarren maila batean bada ere garrantzia ematen zaion beste bi ere badira:

- ✓ Alderdi politikoek hegemonia lortu nahian sortzen duten lehia funtzionamendua eraldatu beharra, alderdiak beraiek izan ez daitezen bestelako kultura politikoaren garapenaren oztopo.
- ✓ Ikuspegi kolektiboa landu beharra, herritarren betebeharrak-eskubideak heziketan landu eta sozializatu.

Azkenik, bi saioetan hirugarren maila batean gelditu dira zehaztasun maila handiagoa duten bi proposamen:

- ✓ Legen ikuspegi dinamikoa lantzearen beharra, aldiro aztertu eta eraldatzea ahalbidetuz.
- ✓ Kopuru handiko inbertsioen kasuan eztabaida soziala eta kontsulta legez arautzea.

1.ERANSKINA.

Txosten interpretatiboaren emaitzen dokumentua



GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017

TXOSTEN INTERPRETATIBOA

CULTURA POLÍTICA DE LA POBLACIÓN GIPUZKOANA 2017
INFORME INTERPRETATIVO

[a]aztiker
soziologia ikergunea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



METODOZKO OHARRAK



FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

IKERKETA KUALITATIBOAREN FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Gipuzkoan bizi diren 16 urtetik gorako herritarrak (**604.906** lagun).

LEHEN MAILAKO ARDATZA: politikarekiko "hurbiltasun-urruntasun" ardatza.

BIGARREN MAILAKO ARDATZA: Generoa, adina eta sozio-ekonomiko-etniko-linguistikoen ardatza

8 ELKARRIZKETA SAKON

5 TALDE-EZTABAIDA

Landa-lana: 2017ko otsailetik uztaileira egin zen. Elkarrizketak elkarrizketatuen etxeetan egin dira, euskaraz edo gaztelaniaz, elkarrizketatuen nahiaren arabera. Eztabaida-taldeak unibertsitate publikoetan edo udal kultur etxeetan.

IKERKETA KUANTITATIBOAREN FITXA TEKNIKOA (LABURPENA)

Unibertsoa: Gipuzkoan bizi diren 16 urtetik gorako herritarrak (**604.906** lagun).

Lagina: **1.469** elkarrizketa.

Landa-lana: 2017ko ekainaren 7tik uztailearen 11ra egin zen. Elkarrizketak elkarrizketatuen etxeetan egin dira, euskaraz edo gaztelaniaz, elkarrizketatuen nahiaren arabera.

AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):

±%2,6 lagin osoarentzat, %95,5eko konfiantza mailan, eta $p=q=50,0$ hipotesirik kontrakoententzat.


1

GIZARTE MODERNO, KONPLEXU
ETA INDIBIDUALIZATUA GARA

SOMOS UNA SOCIEDAD MODERNA, COMPLEJA E
INDIVIDUALIZADA...



HAINBAT GAIREN GARRANTZIA NORBERAREN BIZITZAN (1-10 ARTEKO BATEZ BESTEKOA). SINTESIA




2

...ETA ARDURATSUA ERE BAI

...Y TAMBIÉN RESPONSABLE






**Bizi estilo
indibidualizatu
hutsa**


**Bizi estilo
indibidualizatu
arduratsua**

**Gizarte-
bokazioa duen
bizi estiloa**

INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK (1-10 ADOSTASUN MAILAREN BATEZ BESTEKOA). SINTESIA



**INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK (1-10 ADOSTASUN MAILAREN BATEZ BESTEKOA). GAZTEAK ETA POLITIKA 2009
ETA GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017**



3


KONFIANTZA-SARE ETA GIZARTE KAPITAL ABERATSEKO LURRALDEA DA GIPUZKOA

GIPUZKOA ES UN TERRITORIO DE ABUNDANTE
CAPITAL SOCIAL Y REDES DE CONFIANZA




3.1 BESTEENGANAKO KONFIANTZA

OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKEELA USTE DUZU ALA BESTEEKIKO HARREMANETAN INOIZ EZ GARELA BEHAR BEZAIN ZUHURRAK IZATEN?




OROKORREAN, PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE 7-10 PUNTUAZIOEN %, ESS7 2014; ETA PERTSONA GEHIENENGAN KONFIANTZA IZAN DAITEKE %, GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017.




3.2 ELKARTEETAN EDO TALDEETAN PARTE HARTZEA

PARTE HARTZEA ELKARTE EZBERDINETAN. KIDE IZAN ETA PARTE HARTZEN DUTE. SINTESIA




PARTE HARTZEN DUTENAK, ZENBAT ELKARTETAN PARTE HARTZEN DUTEN



3.2 ELKARTEETAN EDO TALDEETAN PARTE HARTZEA

PARTE HARTZEN DU AZKEN 12 HILABETEETAN ELKARTEREN BATEAN % ESS7 2014 ETA KIDE ZARA ETA PARTE HARTZEN DUZU % GIPIZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017



4

POLITIKAGINTZAREN IKUSPEGIA


VISIÓN DE LA POLÍTICA




4.1 POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI

4.1.1 Politikak eragiten dituen bizipenak negatiboak dira, baina gutxi dira indiferenteak

POLITIKAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK (BI AUKEREN BATURA). SINTESIA




INDEFERENTZIA ETA BESTE ZERBAIT SENTITZEN DUTENAK.



4.1 POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI

4.1.1 Politikak eragiten dituen bizipenak negatiboak dira, baina gutxi dira indiferenteak


GAZTEEN ARTEAN POLITIKAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK (BI AUKEREN BATURA). 2009-2017




4.1 POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI

4.1.2 Alderdiak eta politikariak hautemateko moduan anibalentzia zantzuak sumatzen dira

ALDERDIEN IRUDIAREN INGURUKO IRITZIAK. ("GEHIENBAT ADOS" ERANTZUN DUTENEN %). SINTESIA




POLITIKARIEN IRUDIA. (0 EZAUGARRI NEGATIBOA-10 EZAUGARRI POSITIBOA. BATEZ BESTEKOA). SINTESIA



POLITIKAGINTZAREN ETA POLITIKARIEN PERTZEPZIOA NEGATIBOA DA NAGUSIKI

4.1.2 Alderdiak eta politikariak hautemateko moduan anibalentzia zantzuak sumatzen dira

POLITIKARI GUZTIAK BERDINAK DIRA EDO BADIRA SALBUESPENAK ERE?



5


DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA

GANAS DE PROFUNDIZAR EN LA DEMOCRACIA




5.1 DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAZ ETA EREDUAZ

POZTASUN MAILA DEMOKRAZIARIK EUSKADIN/ESPAINIAN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN




OSO EDO NAHIKO POZIK DEMOKRAZIARIK EUROPA/ZURE HERRIALDEAN DUEN FUNTZIONAMENDUAREKIN. 2017KO MAIATZA. EUROBAROMETROA




5.1 DEMOKRAZIAREN FUNTZIONAMENDUAZ ETA EREDUAZ

HERRITARREN PARTE-HARTZEA EGITURATZEKO MODUEI BURUZ, AUKERA HAUETAKO ZEIN DAGOEN HURBILEN ZURE IRITZITIK




5.2 ERABAKIEK ZILEGITASUN GEHIAGO DUTE EREDU IREKI ETA PARTE-HARTZAILEEN BIDEZ EGINAK BADIRA, NAHIZ ETA NIK PARTE HARTU EZ

PREST EGONGO ZINATEKE ZURE DENBORA ESKAINTZERA GAI PUBLIKOETAN PARTE HARTZEKO?




NOIZBAIT PARTE HARTU DUZU INSTITUZIOEK BULTZATUTAKO PROZESUREN BATEAN?




5.3 DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOA ALDATU EGITEN DA ADINAREN ARABERA

HOBESTEN DEN DEMOKRAZIA-EREDUA, ADINAREN ARABERA



HOBESTEN DEN DEMOKRAZIA-EREDUA, ADINAREN ARABERA. GAZTEAK ETA POLITIKA 2009 ETA GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017




6

DEMOKRAZIAN SAKONTZEKO GOGOIA ETA EUSKAL ESTATUA


GANAS DE PROFUNDIZAR EN LA DEMOCRACIA Y EL
ESTADO VASCO




EUSKAL GIZARTEAK BERE ETORKIZUN POLITIKOA ERABAKITZEKO GALDEKETA EGITEAREN ALDE EDO KONTRA ZAUDE?



EUSKAL ESTATUAREN ALDEKO EDO KONTRAKO JARRERA



**EMAITZA ONARGARRIA IZATEKO NAHIKOA LITZATEKE %50a
GAINDITZEA, EDO GEHIAGO BEHARKO LITZATEKE?**




7

DEMOKRAZIA DIGITALA


DEMOCRACIA DIGITAL



ERABILTZEN DIREN BITARTEKO DIGITALAK, ADINAREN ARABERA



PREST INTERNET BIDEZ BOTOA EMATEKO. ADINAREN ARABERA



GIPUZKOARREN KULTURA POLITIKOA 2017

TXOSTEN INTERPRETATIBOA

CULTURA POLÍTICA DE LA POBLACIÓN GIPUZKOANA 2017
INFORME INTERPRETATIVO

[a]aztiker
soziologia ikergunea

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

